

**LIBURUA**

Izenburua: 'Bakarrik eta Buztangabe'.
Egilea: Patxi Zubizarreta. **Marrazkiak:** Jokin Mitxelena. **Orrialde kopurua:** 64 orrialde, koloretan.
Argitaletxea: Pamiela.

Patxi Zubizarreta

IDAZLEA

«Halako lagun eta albiste pozgarriekin ezin bakarrik sentitu!»

Itsi dira udako oporrak, eta auto eta furgoneta ilara luzeak doaz hegoaldera. Furgonetako horietako bat gasolindegí batean geratu da. Etorri bezala joan dira, baina neskatala bat geratu da gasolindegian, bakarrik. Ahantzia utzi dute. Gero, beste auto bat etorri da. Haiak katu bat utzi dute abandonaturik. Jokin Mitxelenak apaindu du Zubizarretaren istorioa. Gaztelaniaz eta koreeraz ere argitaratu dute ipuina.

Zer kontatu nahi izan duzu ipuin honekin?

Mendebaldeko gizaratean gauza gehiegi dauka, baina Marokoko herrixketara joaten zarenean, adibidez, neska-mutikoak boligrafo edo arkatz bat eskatzera hurbiltzen zaizkizu... Etorrenean ere, oporretan Europatik Afrikara itzultzen direnean gauza asko eramaten dute furgonetetan, baina batez ere beren familiekin elkartzeko gogoak bultzatzen ditu, herri-minak. Kontraste hori, alde hori nabarmendu nahi nuen.

Nor dira Bakarrik eta Buztangabe?

Batzuetan maskota

bat, animalia bat ere nahi izaten dugu, baina ez gara konturatzen txakurra, dortoka edo txoria zaindu egin behar dela, garbitu, akaso parkera atera... Udan, horietako asko abandonatu egiten ditugu, ipuineko Buztangabe katua bezala. Neskatala, ordea, Bakarrik, furgoneta batekoak ahaztu egin zuten gasolindegian.

Biak ahaztuak utzi dituzte, bakarrik.

Laguntasuna batuketa baten antzekoa da: bakardade 1 + bakardade 1 = adiskidetasuna. Hori gertatzen zaie neskatalari eta katuari,

eta hori gertatzen da literaturarekin ere, halako konpainia-edo sentiarazten dizu.


Beste kultura batzuen ohiturak aipatzen dira.

Eskoletara joaten naizenean, Euskal Herrian bertan, igual egun bakar batean munduaren itzulua egiten dut. Jatorriz txinatarrak, errumaniarrak, marokoiarrak, etiopiarrek... diren neska-mutiko asko topatzen ditut, irribarretsu, irrikaz, eta *Gutun harrigarri bat*, *Usoa* edo *Arroza eta tinta* ipuinek kulturartekotasuna bideratzen dute. Behin, Arroan, mutikotxo batek ipuineko amona sahararrarekin espero izan ninduen...

Asmatu al du Mitxelenak ipuineko samurtasuna islatzen?

Asmatu al du Mitxelenak ipuineko samurtasuna islatzen?

Musikaltasun eta erritmo handiko ipuina da, eta Jokinek primeran jaso du hori. Idazle barentzat ilustrazioak eta itzulpenak benetako opariak dira, eta liburu hau gaztelaniaz -*Sola y Sincola*- eta koreeraz ere argitaratu da, Noemi Villamuzaren marrazkiekin. Halako lagun eta albiste pozgarriekin ezin bakarrik sentitu!

**LIBURUA****'Rita eta alkimistaren ametsa'**

Rita Pragara joan da, Txekiar Errepublikako hiriburura, Egu-berrietako oporraldiko egun batzuk igarotzera. Osaba Daniel eta beste aditu batzuk hiriko gaztelu arakaten eta alkimista baten egunerokoa bilatzen ari dira han. Duela urte asko, edozein gauza urre bihurtzeko formula bilatzen aritu ziren erdi azti erdi kimikari horiek. Kondairaren arabera, Gatuso alkimistak aurkitu zuen azken formula hori. Zein ote zen formula?

**Mikel Valverde**Argitaletxea: **Elkar****DVDA****'Mystikal'**

Hanka sartze txiki bat egin du Eldyn azti ikasleak, eta gaitzik larrienak mundu osoan hedatzeko arrisku larria dago. Errudun sentitzen denez, arazoak konpontzen saiatuko da. Hala, gorabeheraz josiriko bidaiari ekingo dio. Firak, basoko ninfa txiki batek, lagunduko dio bidaiari. Bidean, hainbat adiskide topatuko dituzte, baina baita zenbait etsai ere. Bidaia gogoangarria izango da, du-darik gabe. Lortuko ote du Eldynek helburua? Mundua salbu izango ote da?

Argitaratzailea: **Dibulitton Studio**